

Irailak 28, domeka

Jose Antonio Hontoria. Akordeoia **Aitor Amilibia. Txistua**



JOSÉ ANTONIO HONTORIA

Donostian jaioa. Musika Ikasketak 5 urterekin hasi eta nazioko eta nazioarteko hainbat lehiaketatan parte hartu eta gero, 12 urterekin akordeoia Basetti sistemarekin lantzen hasi zen. Bakarlari gisa zein kamara-musika landu izan du hainbat taldetan. Errusiar eta alemaniar irakasleen eskolak jaso eta hainbat sari irabazi ditu, haien artean "Grand Prix Europeo" lehiaketan 1. saria eta "Trofeo Mundial" lehiaketan 2. saria. Akordeoiaren interpretazioari buruzko ikastaroak eman eta akordeoi-lehiaketatan epai lanetan ere aritu izan da. Bilboko J. C. de Arriaga kontserbatorioan irakasle ere izan da.

"Silboberri Txistu Elkartea"ren proiektuan parte hartzen du, Aitorrekin batera. Elkarteak izen handiko konpositoreei enkargatutako obrak estreinatu ditu musika garaikideko zikloetan. Estreinatu eta gero grabatuak dira elkartearen CD bldumarako.

AITOR AMILIBIA

Donostiako kontserbatorioko ikasle izanik erdi eta goi mailako amaierako 1. saria irabazi eta gero, 1980 urtean José Ignacio Montes bakarlarientzako lehiaketan eta 1984an txistu bandarako Isidro Ansorena lehiaketan lehen sariak irabazi izan ditu. Txistuaren afinazioari buruzko ikerketa bat hasi zuen Jesus Alonsorekin batera eta emaitza garrantzitsuak lortu.

Gaur egun Bilboko J.C de Arriaga kontserbatorioan eta Musikene Goi Eskolako irakaslea da. Silboberri elkartearen lehendakari ordea ere bada eta bertan ikertzen jarraitzen du. Elkarte horren helburua txistuaren errepertorioa eguneratzea eta aberastea da. Horretarako izen handiko konpositoreei obrak enkargatu, estreinatu, grabatu eta, azkenik, argitaratu egiten dituzte. Elkartearen kontzertuak eskaintzen ditu, besteak beste J. A. Hontoriarekin duan eta lengoaia garaikideko lanak estreinatzen dituzte..

EGITARAUA

Rondó	W. A. Mozart
2 melodia	Tomás Aragües
Euskal Suite (3 mug)	Tomás Garbizu
Telar	George Pajulskin (akordeoia)
Suite (9 mug)	Aita Donostia
Honai	Hilario Extremiana
La vals à Margaux	Richard Galliano (akordeoia)
Heimat (5 mug)	Carlos Ibarra